

Rosa Maria Martín Salvaris

EHUKO IRAKASLEA ETA IKUS-ENTZUNEZKOETAN ADITUA

Tamainaren garrantziaz

Duela urte bi inguru grebara joan ginen UPV-EHUko irakasleok. Soldata “duinaren” aldeko greba zen, soldata igotzearen alde alegia. Gehiengoak greba egin bazuen ere, irakaslerik gehienek ez zuten soldata murriztuta ikusi hilaren amaieran. Unibertsitateko kontuak. Ez eta handituta ere hurrengo bi urteetan. Unibertsitateko kontuak horiek ere. Gizabanako bakoitzak egiten duen lanaren kontrola arazo handia izan da luzaroan unibertsitatean. Lanuzte haren ostean onartu zen “osagarri gehigarrien” sistemak kontrol-gabezia hori arindu nahi izan zuen, A, B eta C osagarrien bidez; lehena, bertan lanean emandako urte kopuruaren arabera; bigarrena, *kalitatea eta etengabeko hobekuntza* saritzeko; hirugarrena, *bikaintasuna* ospatzeko. Urtetako irakaskuntza, ikerkuntza eta kudeaketaren ziurtagiriak biltzeari ekin behar izan genion orduan. Eta une hartantxe hasi ginen susmatzen egindako batzuk meritua izango zirela, eta beste batzuk osteralana baino ez.

Izan ere, UNIQUAL “Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatze Agentziak” izendatutako jakintsuek lanak izan dituzte gu guztion lana neurtzeko orduan, kalitatea kantitate bihurtu behar izan baitute puntuazioa esleitzeko orduan. Hiru mailatik gora irakaslek aurkeztutako dokumen-



INIGO AZKONA

tazio mardula aztertu eta bakoitzak merezi izan duen puntu kopurua zehaztu dute. Eta horren arabera soldata.

Oraindik ere ez dugu sosik ikusi (udaberrirako akaso), baina hasi dira antzematen bestelako ondorio bi. Lehena, nor bere buruarekiko solasaldian: atzera begiratu, ez da oso lanputza izan behar konturatzeko egindako hainbat lan hutsaren hurrengo direla baremo horietan, lanputza. Hemendik aurrera baremoari begirik kendu gabe egingo ditugu beharrak. Puntuaziorik altuena lortu dutenei, gainera, %5eko, %10eko edo %15eko gehigarria gehitu zaie, “bikaintasuna bultzatzeko helburuarekin” (sic), dauden kuartilaren arabera. “Daukanak ez daukanari, imilaun arto eta gari” zen aintzinako gizalegea; orain, aldiz, D’Hont legea.

Eta bigarrena, lagun hurkoarekin berbetan: egun hauetan nor bere puntuazioa kontatzen ari dela, ezinbesteko bilakatu da alderaketa. Lan-kide batek botatakoa: “nork duen luzeagoa, hari (lan) saria!”, baina gaztelaniaz erabili duen izenordainak ondo erakutsi du zerekikoa izan den metafora. Eta aldameneko gizonzkoen barre-algarak entzun behar izan ditut.

Osagarri gehigarrien sistemak kalitatea hobetzeko putzak eman nahi izan ditu, eta haizeputz batzuek ondo baino hobeto hartu dituzte putzak. ■

«
Osagarri gehigarrien sistemak
kalitatea hobetzeko putzak eman
nahi izan ditu, eta haizeputz
batzuek ondo baino hobeto
hartu dituzte putzak
»

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza

Aspaldiko



Partez, igandean hurbildu nintzen futbol zelai bate-tara haur txapelketa bat ikustera. Hamar-hamaika urtekoak ziren. Goizeko bederatzi eta erdiak, zelai erdia itzalean izoztua. Jokalariak zutik ibiltzeko arazoak. Hala ere, sekulako borondatea. Eguzkipeko aldean, jokaldi politik ikusi nituen, baloia maite elkar hartzen zuten trebeki. Talde batean, neska pare bat. Denbora gutxi jokatzeko zuten, entrenatzaileak berehala aldatzen zituen. Inguru, entrenatzailez josita. Gurasoak. Bakoitzak bere haurrari aginduak ematen. Eta asmatzen ez bazuten, entrenatzaile errudun. Bati entzun nion, presiopean jokatzeko ikasi

behar zutela txikitatik. Neskak salbu, hauek sobra ere dekoraziorako zituzten, progresistak baikara oso eta hauen parte-hartzeak kolore modernoak ematen baitio lehiaketari. Kasualitatez, nesken ekipoa zen galtzailea beti, jokatu aurretik irabaziko ez zutela jakitun. Lehen sailkapenetan kanpo gelditu ziren jokaturako bi partidak galduta. Aldagela bidean neskek gurasoen kotxetara egin zuten, mutilak marmarreen elkarrekin dutxetara zihozten bitartean. Erdi-finaletan normalizatu zen txapelketa, galtzaileen gurasoek beren semeen porrota neskei egozten zieten unean, nik egunkaria irakurtzera ondoko kafe-tegira alde egin nuenean. ■